

# BERRIGARA

103. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, apirilak 16

**PAZKU  
IGANDEAN  
TXEKORKETA  
BEHEKO  
ESTAZIOKO  
ZEZEN  
PLAZAN**

**IBILGAILUEN  
IKUSKETA  
EGITEKO  
TAILERRA  
UZTAILERAKO  
SAN  
LORENTZON**

## KIROLAK

**BERGARA  
K. E. KO 2.  
ERREGIONALA  
PROMOZIOAREN  
BILA  
LARUNBATEAN**



**ELIZA  
BARRURA  
SARTU  
GARA**



## DESKUBRA EZAZU OPEL ASTRAREN BALIO BERRIA

OPEL ASTRA: SEGURITASUNAREN BALIO BERRIA.  
OPEL ASTRA: EROSOTASUNAREN BALIO BERRIA.  
OPEL ASTRA: INJINARITZA ALEMANAREN BALIO BERRIA.

DESKUBRA EZAZU ORAIN ZURE OPEL BANATZAILEAN.  
OPEL ASTRA. ETORKIZUNEN INJINERUTZA.

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK

**OPEL**

## TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnak: "6 33 44 / 45 / 46.  
BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEn:  
Loramendi, 2. Tfnak: "9 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA  
ETA GOIERRI GARAIrako  
kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAN

## TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellon A-13. Tel. "9 62 65

Masterreka, 14 BERGARA

☎ 76 54 14



BEROGAILU, GAS eta  
ITURGINTZA  
AZTERLANAK

BAINU  
DISEINAKETA


# BERTSO AFARRIA

JOSE LUIS GORROTXATEGI  
MILLAN TELLERIA

**NON: Uberako Jaolatza Elkarteetan**  
**EGUNA: Apirilak 24**  
**ORDUA: Gaueko 9ak**  
**PREZIOA: 2.500 pzta.**

Txartelak salgai Uberako Ilargi tabernan edota JARDUN Elkarteetan Masterreka 13an (apirilak 19a baino lehen).

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK: Bergarako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia

BERRIGARA astekaria  
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97  
Errotalde jauregia, 20.570  
Bergara

Argitaratzailea:  
Jardun Elkarte. Masterreka, 13  
Bergara. ☎ 76 08 19

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
eta Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:

E. Azkarate eta E. Mendibil.

Publizitate eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne  
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Inaki Eraña, Gorka Elorza eta  
Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,

Estepan Plazaola, M. A.  
Elkorobereibar, J. M. Elexpuru,  
J. Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain,  
N. Alzelai, A. Lete, J. A. Bengoa,  
M. Lizarraide, Monika Belastegi,  
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,  
Asier Madinabertia, Josune Iñarra  
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifru.

Komikia eta marrazkiak: Josu  
Okina eta Antonio Arrilaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati.)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esa-  
nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo sailaren laguntza jaso du

### PROTAGONISTAK

## EUSKAL ZIRKOA

Aste Santuaren amaiera alaitzeko bisitari etorri zaigun Williams zirkoa izan dugu aste honetako protagonista. Asteazken eta ostegun arratsalde hiru emanaldi eman dituzte eta bertara joan direnek ohizko trapezistak, pailazoak, domatzaileak eta animalia exotikoenak ikusi ahal izan dituzte.

Oraindik ere zirkoa jendearentzat erakargarria izaten jarraitzen duela frogatu du.

Nobedade gisa, Euskara Zerbitzuak bultzatuta, zirkoko aurkezlearekin batera aurkezle euskaldun bat ere aritu da Bergaran,



Idoia Azkarate bergarar gaztea hain zuzen ere. Bestalde zirkoa iragartzeko megafonia, euskara hutsez egin da. Euskara Batzordearen asmoa hemendik aurrera datozen zirko guztiek aurkezle euskaldun bat ekartzeaz arduratzea litzateke.

**Egun hauetan bisitari izan dugu aurkezle euskaldun eta guzti**

### ITURRI ONETIK

## Taun-Taunek bideoa grabatu

Taun-Taun Show azken antzezlanaz ezagutzera emateko bideo bat grabatu ondoren, Taun-Taun talde bergararrak, esperimentazio modura, epe laburrera beste bideo bat grabatzeko asmoa du. Amaia Labaien, Silvia Mendibil eta Asier Altuna bergarar bideogileek eta taldearen inguruko beste hainbat lagunek hartuko lukete parte. Infernukua tabernan girotuko litzateke istorio berri hau Karlos Odriozola aktorearen parte hartzearekin.

### ESAN DUTE

"Futbol kolalaria ikaragarri aldatu da azken urteetan. Bakero da garai bateko kasta gordetzen duen bakarra. Partiduko mila milioi irabazi arren, betiko letxe txarra edukiko du eta horregatik izango da futbolari haundia eta jokalaria kementsuaren prototipoa".

**AGUSTIN ARANZABAL "GAZTELU"**  
Realeko jolalaria ohia  
DEIA

"Maitasun gutunak oraindik ere idazten dituenik bada, nahiz eta ez gehiegi izan.

Berrigarako lehiaketara jende asko aurkeztu zen, baina kopuru hori ez da errealitatearen ispilu, lehiaketa bat zela hartu behar dugu kontutan".

**OIER ARAOLAZA**  
Amodiozko Gutunen I. Berrigara  
Lehiaketako irabazlea  
EGUNKARIA

Atsedeen zentrua  
**LOKARTU**  
Koltxoi-Denda  
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

**EZPELETA**  
etxea

Harizko eta kotoizko  
goimailako izara eta  
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

**ZUBIETA**  
elektragarintza

✓ Motoren bobinaketa  
✓ Era guztietako instalakuntzak  
Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48



**LOS FIGONES**

Ostirala: 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30. eta  
22.15.  
Astelehena: 19.30.



**¿PORQUE LO LLAMAN  
AMOR...?**

Larunbata: 17.00, 19.30 eta  
22.30.



**DE RATONES Y  
HOMBRES**

Osteguna: 19.30.

**Zinea**

▼▼ Oso aktore ezagunak agertzen dira espioitza filme honetan. **Robert Redford, Dan Aykroyd, Sidney Poitier** eta bere lagunek kuadrila xelebrea osatzen dute eta, nola ez, filmeko onak dira. Objeto arriskutxu batekin topo egitean gauzak zatartu egingo zaizkie.

▼▼ **Veronica Forque** eta **Jorge Sanz** erreparto buruan, **Manuel Gomez Pereiraren** (*Salsa rosa*) filme honetan sexuari buruzko ikuspegi erotiko-barregarri bat ematen zaigu. Komedian primeran aritzen diren aktoreekin.

▼▼ **John Steinbecken** nobela ezaguna pantailaratzea nahi izan du **Gary Sinisek**, antzerkian lortutako arrakastaraen ondoren. Bere ondoan, antzerkian berarekin aritu zen **John Malkovich** izango du.

**Erakusketak**

▼ **Jubilatuen tailerretako** lanak igandera arte, hilak 18, ikusi ahal izango dira Kultur Etxean.

**Deiak**

▼ **Literatur Lehiaketarako** lanak aurkezteko epea datorren asteartean, hilak 20, amaitzen dela gogorarazten du Bergarako Udalak.

**Farmaziak**

▼ **Larunbata 17:**

Guallar/Amezua

▼ **Igandea 18:**

Guallar/Ruiz.

▼ **Astelehena 19:**

Estella/Morales.

▼ **Asteartea 20:**

Mozos/Azkoaga.

▼ **Asteazkena 21:**

Camacho/Español.

▼ **Osteguna 22:**

Puy/Corcuera.

▼ **Ostirala 23:**

Guallar/Amezua.

**Ogia**

▼ **Igandea 18:** Bolintxo.

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE



**ETXEBERRIA**

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA


## **Ikuskizunak**

▼ **Udal Musika Bandaren** kontzertua igandean, hilak 18, eguerdiko 12 t'erdietan Novedades aretoan.

▼ **La fuerza del cariño** filmea iragarri du Antzuolako Gazinemak larunbaterako, hilak 17. Gaueko 10etan Antzuolako zine-aretoan.

## **Aukeran**

▼▼ **Iñaki Perurena** harrijasotzaile leitzarrek bere markak hobetzeko saiakerak egingo ditu larunbatean, hilak 17, Bergarako Frontoian. Arratsaldeko 4 t'erdietan jokatu den pelota partiduaren ondoren, Perurenak bi marka hobetu nahi ditu: lehenbizi 318 kg. ko harria bi eskurekin eta ondoren 266 kg. koa esku bakar batekin (ETB-1, 16.30etatik aurrera).



## **Kirolak**

### ▼ Eskubaloia:

- **Bergara-Aloña Mendi** (kadete neskak). **Larunbatean** 16.00etan.
- **Bergara-Aloña Mendi** (kadete mutilak). **Larunbatean** 17.15etan.

### ▼ Futbola:

- Kirol Eskolako Futbol-7ko txapelketa larunbat goizean Ipinztan.
- **Eibar-Lasalle** (jubenilak). **Larunbatean** 15.30etan Ipinztan.
- **Bergara-Dunboa** (2. mailako erregionala). **Larunbatean** 5etan Agorrosinen.
- Kirol Eskolako Futbol-7 txapelketa igande goizean Ipinztan.
- Kirol Eskolako Futbol-7 txapelketa asteazken arratsaldean

Ipinztan. 6etatik 8etara.

### ▼ Saskibaloia:

- **Bergara-UPV** (senior gizonak). **Larunbatean** 18.30etan Kiroldegian.


### ▼ Pelota:

- Elosuko Pelota Txapelketa (alebinak eta beteranoak). **Igandean** 11.30etan Elosun.
- Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako Pala Txapelketa igande goizean Osintxuko Pelotalekuan.

### ▼ Futbitoa:

- **Astebukaeran** Labegarieta-ko Kiroldegian.

**5**



## **PROFESIONALAK**

- Lejardi-Galarza III.a/ Urionaguena-Zezeaga.
- Iñaki Perurenaren saiakerak 318 kg. eta 266 kg. ko harriekin.
- Soroa III.a-Galardi/Goñi-Andueza VI.a.

Larunbatean arratsaldeko 4 t'erdietan Bergarako Udal Pelotalekuan.

# **KIZKUR**



**Neapaindegia  
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



# **ETXAGI**

**Jatetxea**

Afariak - Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua  
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

**Errespetu pixkat**

Ez da nire asmoa futbolzale gazte-ekin polemikan sartzea, batez ere Bergara Kirol Elkartean egiten den lana eta ahalegin guztiak beraiantzat direla kontutan hartuz. Baina, Bergara Kirol Elkartean bazkide eta batean edo bestean elkartearekin lankidetzan diren guztiei errespetoagatik, orain dela aste batzuk BERRIGARAN agertu zen gutunari erantzun beharrean aurkitzen naiz.

Hasteko, eta argibide gisa, Agorrosinen sartzeko prezio bat ordaindu behar da, eta prezio hau gurearen mailako kipo guztiak duten prezioen antzerakoa da. Garestia iruditzen zaizuen arren, hau da kostatzen dena.

Sarrera erosten duen pertsonak sartzeko eskubidea dauka eta ordaintzen ez duena aldiz, ezin da sartu. Ez partidu hasieran, ez atsedenean, ez eta bukatzeko bost minutu falta direnean ere, eta hori, noizean behin atsedenean sartzen utzi ohi den arren.

Bergara Kirol Elkartean partidu bat ikusteko 500 pza. gartestia dela, eta etxean ematen dizueten diruarekin ezin duzuela ordaindu, ulertzen dut, baina ez dut uste hartzen duzuen bidea zuzena denik.

Betiko bide errezena hartu beharrean, hau da, eskutitz batean protestatzea, ez al da hobe elkartera bertara zuzentzea, dituzuen arazoak edota ezakordioak azaltzea?

Horrela izan balitz, seguraski denon artean irtenbide bat aurkituko genuke-

en. Arazo berdinak izan genituen beste pertsona batzuekin, eta adibide gisa esan behar dizuet gaur egun Bergara Kirol Elkartean bazkide batzuk dauzkala 2.000 pza. ordaintzen ari direnak.

Pertsonen arteko balorerik garrantzitsuenetarikoa bat errespetoa dela esan nahi dizuet, bai guretzat, bai gure herritarrentzat eta 20 urte baino gehiago Agorrosingo sarrera zaintzen egon den pertsona baten aurka idazteak, zuen eskutitzean erabili duzuen tonu mingarri horrekin, ez du gehiegi esaten zuen alde. Horregatik, eskertuko nizuke aurreko gutunean pertsona hau deskalkifikatzeko agertu duzuen gogortasun berdina erabiltzea oraingoan barkamena publikoki eskatzeko.

*Alex Garitano*

**B. K. E. ko presidentea**

**Giltzapeko lagunari**

Izenburutzat "Etxaniz" ipintzia pentsatzen najuan karta honi baina bildur nok funtzionariuxa egongo dala sartzan jatzuen papel guztiei begira eta hire izena letra haundiz ikusten badau, akabo.

Eliza bete jente giñuztan hire amaren hiletan. Danok hainbeste sufritzen dabilen familiarari berotasuna eta maitasuna emon nahixan. Ia Jose Mari etorri dan, ekarri daben, denon preguntia. Ezetz. Inork etxuan zergatik galdetzen erantzuna jakinekua zuan eta.

Gero jakin juagu etxera deitzia eskatu hualako egundoko egurtua emon ostela

eta gorputza beltzunez beteta daukela. Ama hil, telefono deitxo bat eskatu eta... egurtua. Zein pertsona sentibera haizen ezpagenki harrizkua haizela pentsauko giñukek. Hamahiru urte. Errez esaten dittuk. Hainbat kartzela diferente, danak urrin, hilabetiak eta hilabetiak zigor-zeldetan, bakarrik, paretak eta heu. Palizak noiznahi borre-ruen aurrian eztokeleko burua makurtzen. Gose-grebak konta ezin ahala eskubide minimuak izatearren. Ebakuntzak, guntzurrin bakarrarekin habil aspaldittik. Behin kontau hostan hospitalian HIESAz hil zan preso bat ohetik etara eta hi sartu hinddutela bertan. Eta zenbat holako.

Nahiz eta hor oso ezkutuan egon gauza asko erakutsi doskuk urte luze honetan; ez tala, ezta momentu latzenetan be, etsi bihar, etsaiak ezabela ezer erregalaten; nahiz eta eskuz eta hankaz lotuta egon burua tente euki bihar dala, duintasuna galdu barik. Gure herrixaren sinbolua haiz, beste presuak bezala. Ahulak gaittuk, historixan zihar mila aldiz makilatua eta zapalduak, baiña oinddio burua tente; bagaittuk eta aurrera be izaten jarraitu nahi juagu. Txixixak gaittuk baiña libre izan nahi juagu, iñor mendian euki barik, geuretako nahi dogun independentzia beste herri eta pertsona guztiendako be nahi dogulako.

Gero arte Jose Mari. Ia laster alkar ikusten dogun Bergarako plazan.

*Juan Martin Elexpuru*

**Tiira ba!**



Josu Okina

## 1945eko kintoak

1945eko kintoek beren anaiarteko eguna ospatuko dute datorren larunbatean, hilak 24. Ordubatean meza izango da eta 14.15etan bazkaria Lasa Jatetxean. Interesatuak beren izena eman dezakete 762140 telefonora deituz.

## Bertso afaria

JARDUN Elkarteak bertso afaria iragarri du larunbaterako, hilak 24, gaueko 9etan Uberako Jaolatza Elkartearen Gorrotxategi eta Telleria bertsolariekin. Izen-emateak 2.500 pta. balio du eta txartelak Ilargi tabernan edota JARDUNen jaso daitezke apirila 19a baino lehen.

# Pentekoste iganderako zezenak Beheko Estazioan

Bergarako Zezen Zaleak taldeak txekorketa bat iragarri du Pentekoste iganderako arratsaldeko 6etan, Beheko Estazioan jarriko den zezen-plaza muntagarrian. Nobillada honek milio bat pta. inguruko aurrekontua izango du eta Zezen Zaleak taldeak sarrerekin gastuei aurre egitea espero du. Zezen-plazak 2.500 lagunendako tokia izango du. Tendidoa 1.500 pta. tan eta barrerako sarrerak 2.000 pta. tan jarriko dira salgai.

Bergarako Zezen Zaleak taldeak 30 bat kide ditu eta nobillada honekin jaietako aspaldiko ohituretako bat berreskuratuko nahi izan du (1965eko ekainaz geroztik ez da Bergaran zezen jairik egin). Edu Garcia eta Javier Chacon bilbotar nobilleroen presentzia ziurtatu da dagoeneko, ba-



Aintzinako ohitura zaharra berreskuratuko da jaietako txekorketarekin.

koitzak Cesar Moreno ganadutegi naparraren 4 txekor toreatuko dituelarik.


Txekorketa honetaz gain, astelehen arratsaldean zezen enbolatuak eta astearte arratsaldean, berriz, koadrilentzako joakuak izango dira toki berean eta igande, astelehen eta astearte goizetan entzierroak Barren-

kaletik zezen plazaraino.

Bestalde, horren kontrako ahotsak ere entzuten hasi dira; horrela, Zezenen Errespeturako Batzordeak dei egiten die animaliekiko tratu txarrarekin sentsibilitutako pertsona guztiei datorren ostiralean, hilak 23, arratsaldeko 7 terdietan Kultur Etxean egingo den bileran parte hartzeko.

## Ibilgailuen ikuskaketa

usko Jaurlaritzako Industria Sailak Bergaran Ibilgailuen inspektzio Teknikorako tailer bat berehala eraikitzeko oneritza eman du, Boletin Ofizialean jasotzen denez. Tailer honek San Lorentzoko industrialdean, Soralue Cooperatibaren ondoan, 4.993 m<sup>2</sup>ko azalera beteko du eta kontzesio bitartez partikularrei utziko zaie bere plotazioa datozen 30 urtetan (hortik aurrera 99 urtera arte luzatu daiteke kontzesioa 10 urteko epetan). skaintzak aurkezteko epea maitzean bukatuko da eta espero da tailerra uztaileko martxan egotea, tailerra eraikitzeak ez baitu zailtasun handirik.



## SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA

## LARRAÑAGA eta ZUBIA

### Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

## TOKI-ONA Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak / Txiteizatzak  
Kazalatzxoak / Txabiernoak

Matxiategi, 1 ☎ 76 39 53

### Jaietako musika

Pazkuetako jaietarako musika taldeak zehaztuta daude jadanik. Bideberriko rock kontzertuei dagokienez, honako hauek izango dira: Ostiralean, El Inkilino Komunista, Spok eta More Esperence; larunbatean, The Alnithers, Angiolillo eta Requiem, eta astelehenean, azkenik, BAP, Daxka eta Fucking What. Dantzaldiak, berriz, honako hauek alaituko dituzte: ostiralean Plazan, Arkaitz taldea izango da, larunbatean toki berean, Izadi; igandean Espoioian, Nueva Alaska; astelehenean Plazan Tarantella eta asteartean Plazan ere, Basakabi. Udal Musika Bandak, bestalde, bi kontzertu emango ditu jaietan, igandean eta astelehenean.

### ELKARRIren aurkezpena

Elkarrizketa eta Pakea bultzatzeko sortu berri den Elkari Elkartearen aurkezpena egingo da ostegunean, hilak 22, 19.30etan UNEDeko aretoan. Bertan Jonan Fernandez eta Maixus Rekalde izango dira eta interesatuei bertara joateko dei egiten zaie.



Masterreka hemendik aurrera "H" barik idatzi beharko da.

## Kale izenen ortografia berria

*Enparantza edota Deunaren ordez, Plaza eta San*

Herriko zenbait kaleren izenen ortografia aldatzeko erabakia hartu du Udalak. Hortarako Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen, Bergarako toponimia biltzen ari den taldearen eta herriko zenbait adituren laguntza eta aholkularitza izan du Euskara Batzordeak.

Hemendik aurrera Enparantza, Deuna edota Zeharbidearen ordez, ulergarriagoak eta erabiliagoak diren Plaza, San eta Kantoia erabiliko dira. Bestalde, toponimoetan ez da "h"rik erabiliko. Kale izen gehienak, beraz, «H» barik idatziko dira

(Euskal Herriaren Adiskideak bezalako izen berriak izan ezik).

Hitz elkartuetan, berriz, marra txoa ahalik eta gutxien erabiltzeko erabakia hartu da eta aurrerantzean Bergarako kale bakar batek izango du marra txoa: Eginu-Mallea. Etxearen izena eginotar baten eta mailetar baten ezkontzatik dator eta. Ibilbidea edota ibiltokiaren ordez, azkenik, pasealekua erabiliko da hemendik aurrera. Laster batean, beraz, Aranerreka, Masterreka, Irizar Pasealekua, Joan XXIII.a Plaza, e.a. idatzi beharko dira.

### PELI NARBAIZA IBARZABAL




Mutua General de Seguros

Agentea Bergaran

Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57

## LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

## FERNANDEZ



Oihal puskak  
Oihalak

San Antonio 3 Ibarra 2  
Tfnoa: 76 22 93 Tfnoa: 76 53 22

# FANCY

GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24





Taun-Taunek antolatu eta Udalak babestutuko du jaialdiaren aurrekontua.

## Helduentzako Txotxongiloak

*Nazioarteko II. erakustaldia apirilaren azken astebukaeran*

Apirilaren 29tik maiatzaren 2ra bitartean Taun-Taun Txotxongilo taldeak Udalaren laguntzaz antolatutako Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko II. Mostra burutuko da gure herrian.

3 milioi pta.ko aurrekontuarekin, besteak beste, honako talde hauek izango ditugu bisitari: Malagako El espejo negro (maiatzak 29), Iruñeako Gus (30), Zornotzako Markeliñe (30), Arjentinako Gabriel Castilla (30), Segobiako Libelula (maiatzak 1), Balentziako Edu Borja (maiatzaren 1ean ere), Jere-

zeko La gotera de la azotea (1), Bilboko Goloka (maiatzak 2), Italiako Hugo e Ines (2an) eta azkenik, Bilboko Paparote (maiatzaren 2an). Kukuma hankapalu taldeak eta La Duda musika taldeak ere hartuko dute parte. Kukumak egunero kalejira bat burutuko du eta La Dudak, berriz, kontzertu bat eskeiniko du maiatzaren 2an gaueko 9etan Pol-Polen.

Horrez gain, apirilaren 28tik maiatzaren 14era Taun-Taunen Txotxongilo erakusketa egongo da ikusgai Kultur Etxean.

## Kikaundi begirale bila

Kikaundi astialdi elkarteak begiraleak behar ditu uztailen antolatuko dituen Udaleku Irekietarako. Begiraleak 18 urtetik gorako bergararrak izan eta euskara ondo menderatu beharko dute. Begirale titulua izatea edo majisteritza, pedagogia edota psikolojia ikasten ihardutea ere baloratuko dira.

Izena emateko epea maiatzaren 5era arte egongo da zabalik Ludotekan (Aranzadi Ikastolako 2. pisuan) 17.30etatik 19.30etara.

## Txapa Eguna larunbatean

Larunbatean, hilak 17, Txapa Eguna ospatuko da. Txapa Irratikoek goizeko 10etarako bizikleta martxa iragarri dute, eguerdian bazkaria izango da trikitilari eta bertsolariekin.

Arratsaldeko Setan Aske taldearekin umeentzako jolasak izango dira eta ordu berean antzerkia. Kobok dultzaineroak eta Kukuma hankapalu taldearekin poteao egongo da 7etan, merkatu txikia ere jarriko da eta gauean rock kontzertua egongo da Gaztetxean.

## MUGICA

Goxotegia



pastelak,  
errellenoak,  
tostoiak,  
tartak...

Artekale, 3  
☎ 76 10 34




## Gaspar

Jatetxea, Txokolategia,  
Self Service-a

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



## JAUJA KIROLAK

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

## SANTOS IRRATI-TB

ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

**Zuek**® Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

# ARTATSE

## Herriko elkarterik berriena

Artatse elkartearen sorrerari buruz hitzegiteko 1981. urtera joan behar gara. Urte horretako urrian, Irizar kaleko 2. zenbakian Arrano elkarteak zabaldu zen. Arrano elkarteak zabaltzeko arrazoiak hainbat izan ziren: batzarrak egiteko, arrazoi gastronomikoak... Elkarte hartan 95 bazkide ziren. Baina elkarte txiki gelditu omen zen elkarte bezala eta batzar toki bezala erabiltzeko, eta elkarte berria egitea pentsatu zuten.

Elkarte berri honi Artatse izena ipini, eta Masterreka kaleko 5. zenbakian ireki zuten 1991. urteko azken egunean.

Artatse elkartearen 150 bazkide dira orain, eta beste bi sartzeko zai daude. Bazkide hauetatik 12 emakumezkoak dira, onartua bait dago emakume bazkide izatea. 150 bazkide hauetatik gain, Bergarako presoak ditugu. Hauek gartzelatik ir-

tetzean beraien tokia izango dute elkartearen. Bazkide guzti hauen batzartesteko adina 38 urtetakoa da.

Presidente den Luis M. Alberdi, Agustin Albizu eta Angel Medina bazkideek azaldu digutenez, Artatse elkartearen joan zen urtean 5.200.000 pztan batu zituzten kontsumoan. Ez dira makalak! Hortaz gain, bazkide bakoitzak hilean 1.200 pztako kuota ordaintzen du. Falta kontutan ere ez dabil tza gaizki. Batzarteste % 0.15 eko faltak izaten dituzte.

Artatse elkarteak ere



Artatse elkartearen inaugurazio egunean.

parte hartzen du Haurren Eguna eta horrelako ospakizunetan, eta beraiek azaldu digutenez, elkarteak zabalik dago bere laguntza eskaintzeko.

Oraindik ez dute

elkartearen egun berezirik izendatu, baina otsailan egin zuten batzar orokorrarena izan daiteke egun hori. Horrez gain, abenduaren 31n luntz bat izaten dute bazkide guztientzat, eta bertan gabonetako hiru saski zozketatzen dituzte.

Sukaldari trebe ugari ere badago Artatsen. Besteak beste, Peña, Miguel Mendibil, Karmelo Begiristain eta Elias Lete aipatu dizkigute.

*Ainboa Lete*

### FITXA TEKNIKOA

**SORTU:** 1991.eko abenduaren 31n.

**BAZKIDEAK:** 150.

**HELBIDEA:** Masterreka, 5. behea.

**PRESIDENTEA:** Luis Maria Alberdi.

**ELKARTEAREN EGUNA:** Batzar orokor eguna.

**URTEKO KUOTA:** 14.400 pztan.

**Zatoia**  
Boutique

BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

**ARDATZA**  
Brikolaketak

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak

**KONDE**  
PANADEROKUA

Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

**LASA**  
**JATETXEA**

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

# Bergarako eliz-parrokiak aztergai

**Aste Santua pasatu da, eta egun horietan elizaren inguruko ekintzak izan dira protagonista, baina elizak bere eguneroko bidea jarraitzen du. Bide horren nondik norakoak jakiteko asmoz Bergarako bi Parrokietan izan gara. Bertan ikusi ahal izan dugu danera 6 apaiz daudela, 3 Santa Marinan eta beste 3 San Pedron. Auzoetara, Uberara izan ezik (Ubera, elizaz Elgeta da), apaiz hauek joaten dira meza ematera. Bi parrokien artean 8 miloi pzta. inguru mugitzen dute urtean zehar, % 70a jendearen laguntzei esker lortzen dute eta beste % 30a jendeak zerga aitortpenean ematen duenetik lortzen dute. Dirua gehienbat apalzen soldatetan joaten da, apaizek hilean 80.000pzta kobratzen baitute eta sobratzen denarekin mota askotako gastuei egiten die aurre.**

**P**arrokiako norabidea zuzentzeko kontseilu bat dago apaizek eta ondorengo arlo hauetako arduradunek osatua: katekisisarena, gazteena, Caritasekoa eta liturgia ospakizuneko (kantua, korua, ea...). Parrokia zuzentzeko erabakiak kontseilu honek hartzen ditu, eta erabakia hartu ondoren sail bakoitzeko arduradunak bere ardurapean daudenekin kontsultatu behar izaten du. Kontseiluan guztiek dute potere berdina eta, derrigorrez, erabakiren bat hartzeko orduan kon-

tseilutik pasa behar da.

Gure parrokien inguruan jende asko mugitzen da, baina azkenaldian, beste kolektibo batzuetan bezala, elizak bere partaidetzan gutxitze bat somatu du eta Xabier Zubizarretak, Santa Marinako parrokoa eta bi parrokien koordinatzailea denak adierazi digunez *"jendearen gutxitzea arazo bat da, baina krisi hau nik uste dut beste batzuek ere igarri dutela, zeren orain «afiliatuen krisisa» baitago. Hori asko ikusi dugu gazteengan, mezetara etortzen dira, baina gero konpromesua hartu behar denean ez dute parte hartzen, bestalde badaude beste gazte batzuk konpromesua hartzen dutenak eta hor daukagu parrokia inguruan mugitzen den «Aske» gazte taldea. Hauek astean zehar lan bikaina egiten dute haurren astialdia antolatzeke orduan. Beraz nik uste dut, guk bizi dugun krisia errealitatearen ispilu dela".*

**"Elizan, emakumeak nagusi"**

Santa Marinako parrokoak argi du zein den emakumearen garrantzia elizan *"gaurko egunean gure elizatan emakumea da nagusi, zerbitzu bat egiterakoan edo lan egiteko orduan emakumeak jarrera hobetagoa agertzen du. Katekesiak emakumezkoek ematen di-*





Xabier Zubizarreta, Santa Marinako parrokoa.

tuzte gebienbat, baina badaude gizonezkoak ere klaseak ematen, parrokiako ekonomia eramateko hor gizonezkoak dira gebiengoa, gizonezkoak ekonomian aritzearena ez da jarrera matxistagatik, hori aspalditik datorrena da eta horrela jarraitzen dugu. Caritas, liturgian eta parrokiako kontseiluan emakumezkoek eta gizonezkoek parte hartzen dute".

Katekesia bakarrik 6. mailara arte ematen dute eta normalean, hortik aurrera haurrek elizarekin duten harremanak eten egiten dituzte eta honi buruz ere Zubizarretak badu bere arazoia "guk ere somatu dugu eten

hori, 14 urtetik aurrera elizarekiko apurtze bat dago, horren zergatia argitzeko datu asko dade, bata familian ikusten dutena da. Gurasoek ez baldin badute bizi eliza, elizaren ekintzetan ez badute parte hartzen, gero nola eskatuko diogu gazteari gurasoek egiten ez dutena egin dezaten?. Beste faktore bat lagun taldea da, kuadrila batek mezetara ez joateko joera hartzen badu normala da gazteak bere lagunei jarraitzea, halaber asteburuan gazteek makina bat ekintza ditu egiteko, futbola dela, mendia dela ea... garai batean aukera hauek ez zeuden eta orduan mezetara joatea

bigarren maila batean gelditzen da".

### "Apaiz eskasia"

Apaiz eskasiak ere ekarri dizkie arazoak Bergarako bi parrokiei, apaiz izateko zaletasuna suspertzeko faktore batzuk aldatu beharko lirake eta Zubizarretaren ustez "aurrerago esan dudan moduan, bokazio faltaren arazoa gizarteko arlo guztietan bizi dugu, horretaz gain gazteek kristautasunaren erreferentzia bakarra apaizaren gain badute, nabiko problematikoa izan daiteke bokazioa hortik sortzea. Baina lantzen baldin bada etxean, ez pen-

tsatuz lehenengo moduko bokazioak egon beharko direnik, seminariotara joatea ea..., pentsa daiteke bokazioak gebituko direla. Gure asmoa kristau pentsamoldea bizitzako arlo guztietara (politika, kultura, kirolak ea...) zabaltzea izango litzateke".


Gazteak apaizgintzan ez dira asko sartzen eta gainera apaizen batz besteko adina gorantz doa, honek arazo ugari sortu dizkio elizari: "Apaizak zenbat eta zabarragoak izan orduan eta gizartearekin lotura txikiagoa izango dute, eta horrela ez dugu elizaren gaztetasunik lortuko" adierazi du Zubizarretak.

### "zelibatoa, abaintaila osoa"

Azkenaldian modan dago apaizen sekularizazioari buruz hitz egitea; hala ere, Zubizarretaren eritziz "apaizarentzat, alde batetik, zelibatoak abaintailak ditu. Apaizak ez du familiarik eta orduan bere denbora libre besteen zerbitzura erabil dezake, beste aldetik hor badago arazo ekonomiko bat, guk, hilaibetero, 80.000 pzta kobratzen ditugu eta diru horrekin zaila da familia bat mantentzea. Horri buruz nik esperientzia polita izan nuen Alemanian, han lanean aritu nintzen eta ikusten nituen apaiz protestanteak, euren seme eta emazteekin, katolikoekin batera egoten ziren ospakizunetan. Honek erakutsi zidan badagoela apaizgintza bizitzerik zelibatoan izan barik. Gainera Ekialde Urrunean apaizek badute ezkontzeko baimena eta beharbada etorkizunean guk ere ezkontzeko aukera izan

**"Kristau pentsamoldea politikara, kulturara, kirolera zabaldu nahi dugu"**  
**XABIER ZUBIZARRETA**





Appéni.

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-  
-AUNDI**

**Negoio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**Aranzabal**

**OIHAL ETXEA**


Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

**LAZKANO**

**Oinetakoak**

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
BERGARA

**Zer eritzi duzu jaietan zezen korridak antolatzeari buruz?**



**Nere Mujika**  
60 urte, langilea

Ondo, neri beti gustatu izan zaizkit eta. Nik behintzat joateko asmoa dut.



**Gotzon Larrañaga**  
33 urte, langabetua

Animaliari min egiten bazaio gaizki. Zezenak ikustea gustoko dut baina hiltzearen kontra nago.



**Martin Azkarate**  
35 urte, langilea

Ez nago batere ados. Behin korrida baten egon nintzen eta ez zait giroa gustatzen. Sokamuturra eta horrek bai.



**Maria Gomez**  
17 urte, ikaslea

Ez zait ondo iruditzen zer egiten dieten zezenei; sufridu erain eta gero akabau. Printzipioz kontra nago.

**J a t e t x e a**  
**J u b i l a t u e n**  
**T a b e r n a**

**MENUA** 750 pezeta

**AFARIAK**

Kuadrilentzako aproposak  
Prezio onean

**KAZUELATXOAK**

☎ 76 62 71

ANTZUOLA




## Beheko Taberna

Menestra eta konejola dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K



I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

## Mujika Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91



### □ Berriotxoaren dantza berreskuratu

Ramon Etxaniz txistulariak bere Joakin anaiarekin orain 26 urte orduko Gazte-Alai dantza talde bergararentzat (goiko argazkian) asmatutako Berriotxo Donearen dantza berreskuratu berri du Xamatx dantza taldeak (behean). Ramon beraren laguntzaz, Xamatzekoek dantza honen berraurkezpena egingo dute datorren apirilaren 25ean Arrasaten ospatuko den Dantza Talde Nagusien Euskal Jaiaren barruan. Gainera, Xamatzekoek Gazte-Alai dantza taldeak erabilitako jantzi berberak (oriental estilokoak eta Simon Arrietak margotutakoak) erabiliko dituzte dotore-dotore. Ea Bergarare ere ikusteko aukera dugun laister...



Goiko argazkian, Gazte-Alai taldea orain dela 26 urteko erretiratuan, Errotalde Jauregiko lorategian. Behean Xamatx Dantza taldea.



## GAZTELU

Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



□ **Zirkoko izarra**

Williams zirkoaren aurkezle izan dugu Idoia Azkarate bergarra bi egunez. Asteazken eta ostegunean eskeinutako emanalditan, bera izan dugu hurrei atrakzio ezberdinak euskaraz aurkezteko arduradun; nahiz eta ikusle pilo bat, atrakzio ugari eta animalia exotiko eta beldurgarrienak hurbil izan, Idoia ez da bildurtu ez. Primeran egin du bere lana eta haurrak poltsikoan sartu dituela esan genezake.



**Zertan dibardute ba?**

VICTORIANO GALLASTEGI



Bergarako alkatea, 51 urtekin, ekainaren 6an egin beharreko hauteskunderetan Senaturako aurkezteko da EAJren Gipuzkoako zerrendan, larunbatean kandidatuen zerrenda onartuko delarik.

JUAN BALENTZIAGA



Arte Ederretan lizentziatua den 33 urteko bergarar honen eskultura lanak apirilaren amaiera arte ikus daitezke Gipuzkoako Gorren Elkarteak (Errege Katolikoak, 14) antolatutako erakusketan.



□ **Euskal Tourra**

Izugarrizko ikusmina sortu zuen ostiralean Bergaran Euskadiko Txirrindulari Itzuliak. Bergaratik pasa ondoren Gorlako bidea hartu zuten korredoreek eta milaka zaletu bildu ziren bertako aldapetan txirrindulariak gertu-gertutik ikusi ahal izateko. Mikel Zarrabeitia (Seguros Amaya) eta Escartin (Clas) izan ziren Gorlako gaina gainditu zuten lehenak eta atzetik, ilara amaigabean, gainontzekoak pasa ziren, guztiak ere zaletuen animoak jasoz. Ostiralekoa ikusita, zalegoari dagokionean behintzat, *tourra* bera ikusten ari geeniharduela ematen zuen...

Zure konfidantzako denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

# Umore giroan

## Vuelta Frantzian

"Vuelta Frantzia" korritzen zan egun aietan. Gilanian, maixan jarrirta txirrinduzale mordozka bat zegoan "AS" errebista aurrian zeukatela. Kolorietako orri asko agertzen ziran "vueltako" pasadisoak kontatzen. Erdi-erdikuan an ikusten zan ziklista pilla haundi bat. Pelotoian zoiazzen. Danak arritxuta geratu ziran fotografi arekin. An zegoen Markox be tente adurra darixola txirrindulari pilla ura ikusten. Batek esan zeban:

- Onek goruntz ala beerutz joiazak?

- Orrek? Beerutz, esan eban Markoxek.

- Zelan dakik hori?

- Pedalari emon barik joiazak eta.

## Belia antiojuekin

Baziarduan "Belia"k, Alfan, esmeril arrixan kutxillua zorrozten. Baiñan antiojo barik. Onetan pasau da andik Jabier Bireti medikua ta diñotsa:

- Antiojo barik ago. Olan ezitxuk egongo ba azidentiak!

Eta Beliak:

- Nik bajakixat ik zer nai duan: "Belia" antiojuekin ikustia.

*Pedro Zelaia*



Bergarako igerilariak, bai gaur egun, bai orain dela 20 urte, beti gorenko mailan. Orain dela 20 urte Gipuzkoako Txapelkun gertatu zirenak Fran Etxaniz, Jabier Pardina, Andoni Narbaiza, Jesus Manzano eta Josune Alberdi izan ziren. Argozkion, beriz, urtebete geroagoko alebin taldea dugu. Ezkerretik eskumara, goiko ilaran: Iokin Laskurain, Gorka Linazisoro, Martin Aspiazu eta Andoni Narbaiza. Beheko ilaran: Matxalen Aspiazu, Eli Linazisoro, Nerea Unamuno eta Aintzane Arizmendi. Hauek ere domino sorta ederrak lepotik zintzilik daukatzela.

## ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK

### BERGARARRAK NAGUSI GIPUZKOAKO IGERIKETA TXAPELKETAN

Joan zen larunbatean, hilak 7, jokatu ziren Donostiako La Perlako igerilekuan alebinentzako Neguko Gipuzkoako Txapelketak. Gure igerilari gaztetxoek lehen postuak lortu zituzten banakako sei probatan eta errelebokako lauretan. Horrenbes-

tez, beraz, Alde haundiz bihurtu ziren 1973ko Gipuzkoako txapelkun. (C.D. Vergara-ko igeriketa taldea sortu zela urtea betetzean).

1973-IV-10. La Voz de España. Bikuña.

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerrotekatik bildutako notiziak

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**  
Kafea da gure berezitasuna  
Zubieta 26, BERGARA

**BERGARA**  
**Karrozeria**  
Txapa - Pintura  
Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31

**LIZAR**  
**Altzariak**  
Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kale Barren 17  
ANTZUOLA

**Aldoka**  
**Maldoka**  
**TABERNA**  
Kruz Gallastegi, BERGARA


**DEBA**  
**GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA  
Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80  
76 06 37



**Zumelaga**

**JATETXEA**

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## ***GALDE DEBALDE***

**BEGOÑA GARCIA ITURBE**

Melchor Sanchez Toca bergarar mediku famatua, Isabel II.a erreginaren mediku pertsonala izandakoa 1806. urtean jalo zen eta 1880ko uztailaren 4ean hil zen Madrilen. Horixe joan zen Galde Debaldeko erantzun zuzena.

**BEGOÑA GARCIA ITURBE** izan da aste honetako irabazlea. Berarentzako, beraz, **ZUMELAGA JATETXEAK** emandako sarria. **ZORIONAK !!**

**Eta besteok segi asmatzen! Animo!!**

# **HERRAN ETXEA**

**Sukaldeko altzariak**

Matxiategi, 4. 76 37 53

**Elektragailuak, TB,  
bideoak, HIFI  
aparailuak.**



Matxiategi, 3. 76 12 22



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



BEGOÑA GARCIAK jašo du aste honetan ZUMELAGA JATETXEAK emandako saria.



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Bergarako Jaietan orain dela urte batzuk egiten zen moduan berriz ere zezen korridak antolatzea erabaki du Jai Batzordeak. Ziur gaude, horrek zer esan ugari sortaraziko duela hemendik jaiak bitartean. Zezenen gaiekin jarraituz, aste honetako galdera zezen korridei buruzkoa da:

**Bergarako zein etxetan eraiki erazi zuen Fernando VII.a erregeak zezen-festa ikusteko begiratoki bat?**



izena

abizena

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

**Salsa ikastaroa**

Udal Kirol Zerbitzuak maiatzaren 4etik 27ra bitarteko astearte eta ostegunetan salsa ikastaroa antolatuta du Arnaldo Patterson Kubako talde nazionalako koreografo eta maisu nagusi ohiarekin. Interesatuak Udal Kirol Zerbitzuan eman dezakete izena, bazkideek 2.000 pta. eta besteak 2.500 ordainduz.

**Pala txapelketa igandean hasi**

Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, 11 bikotek hartuko dute parte igande goizean Osintxuko Pelotalekuan martxan jarriko den Pala Txapelketaren III. edizioan.

**Bigarren errejonaleko futbol taldea promozioaren bila larunbatean**

Lehen errejonalerako igotzeko jokatu beharreko promozioa ziurtatu asmoz, Bergara K.E.ko 2. errejonaleko futbol taldeak Dunboa taldearen aurka jokatu du larunbatean Setan Agorrosin.

Joan den astean Irundarrak 0 eta 8ko emaitzarekin menderatu ondoren, bergararrak sailkapeneko liderrak ditugu eta, larunbatean irabaztekoan, promozioa ia poltsikoan edukiko lukete.

Bergararen atzetik Tolosa (2 puntutara), Dunboa bera (3ra) eta Santo Tomas Lizeoa (4ra) aurkitzen dira, guztiak bergararrak baino partidu bat gutxiagorekin. Promozioa jokatzeko sailkapeneko lehen biak sailkatzen dira eta ondoren beste taldeko bi lehenengoak aurka jokatu dute



2. errejonaleko taldea denboraldi bikaina burutzen ari da.

lehen errejonalerako nortzuk igotzen diren jakin ahal izateko. Ondoren, galtzaileek euren artean jokatu dute eta irabazleak aukera berri bat izango du lehen errejonaleko sailkapenean, atzetik hasita, 3. geratzen denaren aurka.

Manu Diaz eta Javi Orbea entrenatzaileen esanetan, "egia esan, ez ge-

nuen espero aurten hain ondo ibiltzea. Sailkapeneko erdialdean aritu eta 4 bat jokalarik lehen taldera iristea zen gure asmoa; momentuan liderak gara eta dagoeneko 6 jokalarik jokatu dute lehen taldean. Orain, igoera lortu eta datorren urtean lehen taldearen harrobi izaten jarraitzea falta da".

**Bergararrak finalera**

Iker Muruamendiaraz eta Igor Gutierrez bergarar pelota bikoteak kadeteen Euskal Ligaren finala jokatu du larunbatean Setan Gasteizeko Zaramaga pelotalekuan, astelehenean Lizarrako bikoteari Bergaran 22 eta 19 irabazi ondoren. Lizarran ere garaipena lortu zuten bergararrak (20-22) baina hemen kanporaketa aldapan gora jarri zitzaizkien, 5-15eko emaitzarekin galtzen joan baitziren. Azkenean izugarritzko erremontada burutu eta finalerako sailkatzea lortu zuten. Larunbatean Altzagako bikotea izango dute etsai.

**LAKOTA** O.E.

BURDINAKI DENDA  
INDUSTRIARAKO HORNIKUNTZA

Amillaga, 1  
3. pabiloia  
BERGARA

Tfnoa eta Faxa:  
76 08 32

**Mari Carmen****ARRAINDEGIA**

Arrain freskoak, izoztuak eta mariskoak

Kruz Gallastegi ☎ 76 15 90 / 76 40 73

**ZABALDU BERRIA!!**



**Anaitasuna futbol taldea. 1958.**

**S**arritan elkarri zirika ibili arren, hona hemen antzuolar eta bergararrak talde berean elkartuta. Eta, harreman on horien adierazgarri, izena ere «Anaitasuna» jarri zioten 1958an Bergaran jokatu zen herri mailako txapelketa batean txapela lortu zuen talde honi. Txapelketa hartan Bergarako auzoetako taldeek hartzen zuten parte eta zenbait gazte talderik gabe geratu zenez, Jabier Madinabeitia entrenatzaileak gazteokin eta beste antzuolar batzurekin taldea osatu zuen. Gerora, horko antzuolar gehienek Bergaran jokatu zuten.

Ezkerretik eskumara,

**Zutik:** Juanito Lizundia (Antzuola), Alejandro Arroyo, Carmelo Otaola, Jose Luis Errasti (Antzuola), Juan Jose Arrieta, Angel Perez, Javier Madinabeitia (Entrenatzailea), Jesus Mari Larrañaga, Jose Navarro (Antzuola), Alberto Larrañaga, eta Jose Arrieta.

**Makurtuta:** Jose Maria (Burgalesa), Pedro Zubikarai (Antzuola), Luis Mari Jauregi (Antzuola), Santi Aristi (Antzuola), Fernando Agirre, Angel Murgiondo (Antzuola).

*Estepan Plazaola  
Argazkiak: Jauregi "Altzeta"*

**KOTXEA PREZIORIK ONENEAN ASEGUATZEN DIZUGU**

**% 40ko DESKONTUAK**

MODELOA	3	TODO RIESGO (15.000 pzta. ko frankizia)	CICLOMOTORRAK 15.146 pzta.
OPEL CORSA 1.0 base	44.785	84.155	
SEAT IBIZA DISCO			
FORD FIESTA 1.1 CLX	46.584	94.182	
FIAT UNO 55-S 3P			
R-19 GTX	53.345	120.462	MOTORRAK 350 - 500 z.k. 36.036 pzta. 500 - 750 z.k. 49.826 pzta.
R-21 TXE			
AUDI 80 1.8 S	57.401	156.821	FURGONETAK 3.500 K.G.ra arte.



**BILBAO  
ASEGURUAK**

**Agentea  
Bergaran:  
INIGO  
JUARISTI  
ETXEBERRIA**  
Arte kale, 18 behea.  
Tino eta faxa: 76 08 71

## ETXEBIZITZA

**Pisua salgai** Ozaeta 6an. Amueblatua edo amueblatu gabe. ☎ 76 40 67.

**3 pertsonarentzako pisua alokairuan** hartuko genuke. ☎ (945) 45 03 48.

**Garaje bikoitza** alokairuan Burdñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

**Artzamendin pisua salgai** ☎ 74 40 82.

**Garajea salgai** Iparragire kalean. ☎ 76 28 52. Eguerdian edo gauean.

**Artekalen pisua salgai** ☎ 76 55 63. Gauez.

**Pisua alokatzen da** Zurraderon. ☎ 76 23 27.

**Garajea alokatzen da** Zurraderon ☎ 76 21 39.

**Pisua salgai** Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauez).

**Garajea salgai** Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

**Pisu haundia salgai** Urteagan. Terraza, sukaldea, jangela, 3 logela... Merke. ☎ 76 50 18

**Garajea salgai** Urrats azpian. 1.200.000 pza. ☎ 76 57 93.

**Pisua salgai** Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

**Pisu edo buardilla bat** hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

## DENETARIK

**Kerosenozko estufa** japoniarra salgai ☎ 765584.

**Eskiatzeko botak (44a) eta Snow-Board eskiatzeko tabla salgai** ☎ 76 16 33 (Iñaki).

**Bateria salgai.** ☎ 76 47 07 (Richar).

**Mendiko bizikleta (GAC)** salgai ☎ 76 47 94.

**Kanping denda salgai** (haundia). ☎ 76 26 73

**Nintendo bat salgai.** 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

**MOBYLETTE CADY motor bat salgai.** ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

**Skiak (1.40 zm) eta botak (35), saltzen ditut.** Prezio ona. ☎ 76 21 64.

**Egunero Bergaratik Zornotzara** joan nahi dut. ☎ 76 44 46 (Xabier).

**Paseozko bizikleta (bolerero) salgai.** Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

**Etxeko gela bikoitz bateko altzariak salgai.** Egoera onean. ☎ 76 18 61.

**Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai.** ☎ 76 35 50 (gauez) edota 79 82 10 (egunez).

**Errekuperatutako eta berriztutako altzariak salgai.** ☎ 76 25 12 / 76 82 17.

**Nissan Vanette furgoneta bat (SS-AG) salgai.** ☎ 51 51 41.

**Ileapaindegiko altzari eta lan tresna guztiak salgai.** la berriak. ☎ 76 25 38 / 76 23 37.

**Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai.** ☎ 76 32 51.

**Software dun 2.400 BPS modema salgai.** Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

**SEGA Megadrivea salgai.** (3 jokurekin). 18.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabi).

## LANA

**Neska batek edozein motatako lanak** egingo lituzke. ☎ 76 38 90.

**AutoCAD, FP2 Informatikan** praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

**Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Itzulpen eta interprete lanak** egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

**Etxean lan egiteko aukera** ematen dizugu. Aretxabaletako 161 postakutxara (20550) bidalizu karta bat.

## Hildakoak

*Victoriano Ormazabal Amezaga.* 1, 67 urte  
*Lucio Gallastegi Aiastui.* 3, 78 urte  
*Josefa Iturrospe Mujika.* 5, 74 urte  
*Doroteo Ramirez-Dealga Muruaga.* 6  
*Bernardo Santamaria Bergaretxe.* 6, 61 urte  
*Sebastian Osa Elorza.* 9, 78 urte  
*Pedro Ilarduia Etxeberria.* 9, 80 urte

## Jaiotakoak

*Iker Moreno Fernandez*  
apirilak 1  
*Oibane Axpe Telleriarte*  
apirilak 6  
*Jon Nuñez Antolin*  
apirilak 8

## AUTOPULLMANS ARABA

### Autobusak

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

## BOLINTXO

*Kirala egiteko behar den guztia*  
Ibargarai 10,  
☎ 76 38 32



Etxeko ekipamendu osoa

# a, eme... interiores

Garibai, 9 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE

